

IPARRAGIRRE 2020



PROPOSAMENAK

KOMUNIKAZIOA





IPARRAGIRRE. WEBAREN BESTALDEAN		
Iparragirren inguruko artxibo historikoa udal webgunean: abesti, poema, irudi, bibliografia, erakusketa birtuala		
Arduraduna: Fitbak	Non: Urretxu	Esparrua: Komunikazioa, historia, web garapena
DESKRIBAPENA Urretxuko udalak, bere webgunean Jose Maria Iparragirre Balerdiren artxiboa katalogatu eta sarean argitaratu du, Iparragirre2020 proiektuaren baitan. Iparragirri buruzko erreferentziak, materialak, katalogatu dira Urretxuko artxibategiko eta udal liburutegiko funtsetan, baita beste liburutegi eta erakunde batzutakoak ere. Kontsulta irekia ahalbideratu da jakinmina dutenentzat, ikasle, ikerlari eta sortzaileentzat. Pertsonaia honen inguruko erreferentziak eta materialak biltzen dira hemen, Urretxuk koblakariari egingo dion omenaldia gogoratzeko, ikasteko eta sortzeko aukera izan dadin. Artxibo honetan sailkatu diren irudiekin erakusketa bat antolatzea proposatu da, baita artxiboaren katalogazioaren inguruan hitzaldiak antolatzea ere. Bizirik dagoen proiektuak erreferentzia berriak eta deskribapenak aberasten ditu, erakusketa birtuala osatzen		
Hasi: 2019		Amaitu: Jarraipeneko



WIKIPARRAGIRE		
Editoria-Iparragirre		
Arduraduna: Nati Nieves / Mikel Babiano	Non: Urretxu	Esparrua: Komunikazioa, Kultura
DESKRIBAPENA Wikipedia erreferentzia-entziklopedia bihurtu da. Entziklopedia librea, eleaniztuna eta kolaboratiboa da eta aukera eskaintzen du nahi duenak artikulu berriak sortu edo, sortuta daudenen kasuan, zuzenketak iradoki ditzan. Horregatik, plataforma egokia izan daiteke J.M. Iparragirreraren lanari eta bere bizitza pertsonalari buruzko irudia zabaltzeko, baita bardoarekin zerikusi zuzena duten lekuak ezagutarazteko ere. Proposatzen dugun jarduera Iparragirreraren inguruko Editatoia egitea da. Editatoia Wikipediako zaleen topaketa da eta eduki berriak sortzeko edo/eta edukiak aldatzeko baliagarria da.		
Hasi: 2019		Amaitu: Jarraipeneko



PROPOSAMEN

MUSIKA





MUSIKA SINFONIKO KORALA		
Iparragirrereren figura hari nagusia izango duen Kontzertua		
Arduraduna: Gorka Hermosa	Non: Urretxun	Esparrua: Musika
DESKRIBAPENA		
<p>Mendeurren honetarako propio antolatutako Kontzertu bat, non “Urretxutik Mundura” pieza joko den lehenbizikoz.</p> <p>Urretxuko elizan, Gorka Hermosa, Gontzal Mendibil, “María Blanchard” soka boskotea, abesbatza eta gonbidatu berezi eta ezagunen batek emango duten kontzertua.</p> <p>Gorka Hermosaren “Urretxutik Mundura” obra estreinatuko dute, Urretxuko akordeoilariaren doinu ezagunetako batzuk Iparragirrereren kanta ezagunetako batzuekin nahastuko dituenak. Bigarren zatian Iparragirrereren kanta desberdinen bertsio berriak egingo dituzte.</p>		
Hasi 2020ko Ekaina (eguna finkatzeke)		Amaitu: egun berean



IPARRAGIRRE KANTUZ		
Kantu talde ezberdinak eta herritarrak batu eta XIX.mendera joan, Urretxun zehar Iparragirrereren kantak abestuz garai hura hobeto ezagutzeko		
Arduraduna: Euskal kantuzaleen elkarte Euskal Herria Kantuz sarea	Non: Urretxu	Esparrua: Musika, antzerkia
DESKRIBAPENA		
“IPARRAGIRRE KALE-ANTZERKIA KANTUZ” Jose Mari Iparragirre Urretxuko seme-kuttunaren jaiotzaren 200. urteurrena ospatuko dugu datorren 2020. urtean. Egitasmo honen bitartez bere izena eta izana gogora ekartzeaz gain, oso garrantzitsua iruditzen zaigu garaiko ingurunean kokatzea eta Euskal Herriak bizi zuen egoera orokorra azalartzea, transmititzea. Bere iragana ahazten duen herria ezjakintasunera kondenatuta dago, beraz ez dezagun gal aukera hau. Ekimen honetan, Jose Mari Iparragirrereren bizitza antzetzeari gain, garaiko une interesgarriak gogora ekarriko ditugu. Antzezpena mugikorra izango da, Urretxuko espazio ezberdinetan gauzatuko da, eta ibilbide horretan Euskal Herri osotik hurbildutako kantuzaleak, Urretxuko herritarrekin batera, izango dira partaide, ikusle, aktore, eta nola ez, kantuen protagonista nagusiak. Ibilbide horretarako Urretxu XIX. mendeko herria bihurtuko dugu, eta ibilbidean zehar garaiko “paisaiak” edota “eszenarioak” berreskuratuko ditugu.		
Hasi 2020ko irailaren 13an	Hasiera: 11:00etan Amaiera: 14:30ean.	Amaitu 2020ko irailaren 13an
OHARRAK <ul style="list-style-type: none">• Data ez da finkoa, aldatzeko aukerak daude.		



MUSIKA HAMABOSTALDIA		
Donostiako Musika hamabostaldi ibiltariarekin elkarlanean		
Arduraduna: Musika hamabostaldia	Non: Urretxu	Esparrua: Musika
DESKRIBAPENA		
<p>Musika hamabostaldiak, "Musika aitzaki" programaren barruan, Ignaziotar ibilbideko atalak egin ditu azken bi urteotan, ibilbideko etapa bertan hasi edo amaituz. 2020an ere herrian izango dira Iparragirre protagonista duen ibilbidean musika eta ibilaldiak uztartuz.</p> <p>Urretxun, harrera edo agur berezia egingo diote bertako eragile musikalek (Goiargi abesbatza, Iparragirre Balerdi musika tailerra,..) Iparragirrearen erraldoiarekin batera.</p>		
Hasi 2018ko abuztua	Abuztuko egun bat izaten da	Amaitu 2020ko Abuztua



HAUR KORU TOPAKETA		
Iparragirrerren bizitza eta kantuak ezagutzera ematea		
Arduraduna: Gainzuri ikastetxea	Non: Urretxu	Esparrua: Musika, Hezkuntza
DESKRIBAPENA		
<p>Iparragirreri omenaldia” proiektuaren helburu nagusiak honokoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Abesbatz kantuaren bidez, pratika artistiko batean sakontzea.• Musikari profesionalekin lan egitea eta elkarrekin mugaren bi aldeetako kideak jendaurrean aritzea.• Proiektuan parte hartuko duten soka laukotea eta gitarrari esker, estetika “klasiko” batez jabetzea.• XIX.mendeko idazle eta musikari ospetsu den Jose Maria Iparragirrerren biografia eta obra ezagutzera; bere zenbait obra herrikoi bihurtu dira.• Mugaren bi aldeetako kideez osaturiko abesbatzen topaketan parte hartzea, norbanakoaren hizkuntza ezagutzak elkarbanatu eta honi esker ikasleen gaitasun linguistikoa hobetzea.• Kontzertu egunetan, Donostia eta Urretxu (Jose Maria Iparragirrerren jaioterria) ezagutzera.• Ikasleak mundura ireki eta beraien kultura humanistikoan sendotzea.		
PARTEHARTZAILEAK:		
<ul style="list-style-type: none">• Urretxuko (Iparragirrerren jaioterria) Gainzuri eskolako abesbatza. 2020. urtean zehar, Urretxuko Udalak Iparragirrerren jaiotzaren urteurrena ospatzeko kontzertuak, antzerkiak eta bestelako emanaldiak antolatu ditu.• Intxaurren eskolako abesbatza (Gipuzkoa)• La Citadelle eskolako abesbatza (Donibane Garazi. Baxe Nafarroa)• Jean Pujo eskolako abesbatza (Donibane Garazi. Baxe Nafarroa)• landatz eskolako abesbatza (Hendaia. Lapurdi)• Donibane Garaziko musika eskolako Iparralai abesbatza. (Donibane Garazi. Baxe Nafarroa)• Soka laukotea + gitarra bat (Irungo musikari profesionalak)		
EGUTEGIA		
2019 Uztaila – Iraila		
<ol style="list-style-type: none">1. Joxean San Migelek burutuko dituen partituren konponketak.2. Partituren edizioa.3. Instrumentuei eta ahotsei dagozkien zatien grabaketak.		
Antolaketa errazte aldera, 3 kontzertuak 2 asteburutan burutuko dira.		
Martxoak 28 Donostia	Martxoak 29 URRETXU	Maiatzak 16 Baigorri



ANTZER, KIA





ANGELITA, IPARRAGIRREREN BERTSO ASKEA		
Iparragirrearen figuraren inguruan egindako antzezlan		
Arduraduna: Karabansarai	Non: Herriartekoa	Esparrua: Antzerkia
DESKRIBAPENA		
<p>Iparragirre, azken euskal erromantikoa da. Pasioa, ohorea, borroka, foruen eta mundu baten defentsa, <i>rara avis</i> bat bihurtzen dute, lurretik fabrikara aldaketan murgildutako komunitate baten gatazka. Norberaren jabe izatetik, soldata baten esklabutza izatera. Giro honetan, Iparragirre, otoiak, muxuak eta besarkadak eskaini dakiokkeen totem sakratu bat bihurtuko da. Azken baten, berak lortu bait zuen, gizaki orok egin ahal izan ez genuena; Libreak izan.</p> <p>Iparragirrearen bizitza, batik bat, Amerikara burututako migrazioetik aurrera, (erromantikoen suizidio antzeko lhesaldi baten mitoa sortzen zen momentu berean,..) misteriotsua da neurri haundi batetan. Oro har, historia gizonak idazten dutela esan ohi bada ere, Iparragirrearen kasuan, Ameriketako ibilbidearen inguruan dakigun gehiena, bere emaztea den Angelaren bitartez jakingo dugu.</p> <p>Iparragirre, desagertutako mito bat bezala agertzen zaigu. Euskal Foruen galtzearen etsipen giroan, bere bilaketa etorreraren truke ordainsaria eskainiz. Momentu horretan Angelak bidaliko du Iparragirre Euskal Herrira, merezitako onarpena lortzeko helburuarekin.</p> <p>Bilboko zazpi kaletan, Unamunok mirestuko duen argizari irudi bat izango da. Ereserkia eskaini zion zuhaitz santuren parean egindako margo bat. Besarkada hots baten ostean inor gutxiri interesatzen zaion agurea,...behartsua. Istorio honetan, Angela izango da gizonaren bizitzaren berri emango diguna. Ez mitoa. Ezta musikari/artistaren ere.</p> <p>Mendeurren honetarako propio antolatutako, goi mailako artista taldearekin landutako antzerki proposamena da. Urretxu estreinatu, eta Euskal Herriko hainbat txokoetan mendeurrenaren oihartzuna eraman nahi duena.</p>		
Hasi. 2020, otsailak 28		Amaitu Jarraipeneko



PROPOSTAMENTA

LORALDIA. BIHOTZECO JOSE MARI		
Loraldia Kultur Elkarteak antolatutako antzezlanak; elkarlana.		
Arduraduna: Loraldia Kultur Elkartea	Non: Herriartekoa	Esparrua: Antzerki musikatua
DESKRIBAPENA Loraldia jaialdiak "Bihotzeko Jose Mari" antzezlanak prestatu du (Tantaka konpainiarekin eta Demode agentziarekin), non Urretxuk ere parte hartuko duen. Lana Urretxun ere eskaintzea da helburua; Euskal Herriko antzoki ezagunenetan eskainiko den lana.		
Hasi 2020ko martxo		Amaitu Jarraipeneko


ZINEMA





200 URTE, 100 METRO		
Iparragirren figura gaurkotasunetik aztertzen duen filma		
Arduraduna: Udala, Baleuko, Pixel eta Jon Maia	Non: Herriartekoa	Esparrua: Zinema
DESKRIBAPENA Jose Mari Iparragirrenen bizitza, egungo bertsolari baten begietatik aztertzen duen filma; Jon Maia bertsolari urretxuarraren begietatik. Iparragirrenen bizitza eta ibilbideari jarraituz, Jon Maiaren garaiko Euskal Herrirainoko bidaia izango da film hau. Iparragirre bertsolariaren bizitzatik abiatuta, bere garaian indarrean zeuden gai eta gatazkak gaurkoekin harilkatuz Maia bertsolari Urretxuarrak Euskal Herriaren bilakaeraren begirada bat osatuko du. Baleuko eta Pixel produktoreekin egingo da lana; Maia bera gidoilari dela, eta ETBren sostenguarekin.		
Hasi : 2019 Abuztua		Amaitu: 2020 udazkena (estreinaldiarekin)

LITERATURA



BERTSOAREN HARRIA		
<p>Proiektuak gure ondare material eta Inmaterialaren zati garrantzitsua diren artelan horiek denak ezagutaraztea da heburua, interpretazio multiple batean: irudi. bertso. giro, ibili. gogoeta.</p> <p><u>BERTSOAREN HARRIA liburua eta BERTSO SAIOA ETA HITZALDIA</u></p>		
Arduraduna: Lanku bertso zerbitzuak s.l.	Non: Herriartekoa (zerrenda deskribapenean)	Esparrua: Literatura, Kultura, hezkuntza, Publiko orokorra
<p>DESKRIBAPENA</p> <p>Proiektuaren proposamena bertsoa eta eskulturak sortutako ondarea ikusarazi eta izan ziren garaietako gertaerak berreskuratzea litzateke. Hauek dira ondarearen zirkuitua osatuko duten bertsolari. herri eta eskultoreak:</p> <p>Gipuzkoa: F. Amezketarra (Amezketeta), Xenpelar (Errenteria), Bilintx (Donostia), Iparragirre (Urretxu) Galtzaundi (Tolosa), Udarregi (Usurbil), Pello Errota (Asteasu), PM Otaño (Zizurkil), Txirrita (Hernani) Uztapide (Oiartzun), Endoia-Deba/Zestua. Basarri (Zarautz), Lazkao Txiki (Lazkao)</p> <p>Nafarroa Garaia: M. Lasarte (Leitza), Bordei (Luzaide)</p> <p>Bizkaia: B. Enbeita (Bilbo), Kepa Enbeita (gaur egun Gipuzkoako Aldundiaren Gordegi biltegian dago bere eskultura).</p> <p>Nafarroa Beherea: Xalbador (Urepel)</p> <p>Lapurdi: Mattin (Ahetze)</p> <p>Zuberoa: Etxahun—Iruri (Iruri)</p> <p><u>BERTSOAREN HARRIA liburua (30 ale):</u> Argazkilariaren begia eta idazlearen eskua batuko ditu Koldo Izagirrek lan honetan. Bertsolaritzaren Ikonografia publikoa kultur multzo garrantzizkotzat hartuz, bertsoari eta bertsolaritzari buruzko gogoeta original bat proposatzen digu aipuz, irudiz eta gogoeta laburrez. Arte liburu gotor horietakoa izango ez bada ere, edizio berezia eta zaindua izango da, irudien indarra nabarmentzearen.</p> <p><u>BERTSO SAIOA ETA HITZALDIA (saio 1)</u></p> <p>Bateko eta besteko ondare ikonografikoa elkarri lotzea dauka proiektu honek helburu, bertsoa jarraitasun kulturean ezarriz. Erreferentziak ibilbide imaginario bat proposatuz bertsoa eta eskultura lotuz, bertsolariak eta bertsoak. Liburuaren edukia lantzeko, Koldo Izagirrek dagokion herriko pertsonaiari buruzko hitzaldia eskainiko du eta hitzaldiarekin batera bi bertsolari gidatuko lituzke libreko saio batean.</p>		
Hasi 2019 udazkena		Amaitu 2020 udazkena
<p>OHARRAK</p> <p>Parte Hartzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Urretxuko Udala: Proiektuaren sustatzailea - Lanku bertso zerbitzuak: Produksioa, kudeaketa, sorkuntza partekatua - Koldo Izagirre: BERTSOAREN HARRIA liburua - Koldo Izagirre: bertso saio eta hitzaldia. dagokion herriko pertsonaiari buruzko hitzaldia prestatu eta eskainiko du. - Urretxuko udalak aukeratutako 2 bertsolari: hitzaldietan egingo diren bertso saioak burutuko dituzte. 		

IPARRAGIRRE EN LA CORTE El ‘Gernikako Arbola’ y los vascos en el Madrid del XIX		
<p>Euskal bardo ezagunenaren madrilgo joanetorrien inguruko liburua</p>		
Arduraduna: Francisco de Paula GARCÍA	: Madrid	Esparrua: Literatura, Kanpo harremanak
DESCRIPCIÓN <p>Jose Mari Iparragirrek 1830, 1850 eta 1870 hamarkadetan Madriden pasatako denboraldien inguruko liburua; haren bizipen, lorpen eta esperientziak kontatzen dituena. Euskaldunak erromantizismo garai hartan Madrilgo gortean nola bizi ziren ere azaltzen du; testuingurua, momentua, etab.</p> <p>Proposamenak ondorengo ekintzak ere eskaintzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurkezpena madrilgo Urrechu jatetxean; irakurketa dramatizatuarekin. 2. Aukerpena Urretxun, idazle eta editorearen partehartzearekin 3. Aurkezpena madriden: Librería Neblí c/. Serrano, central del Grupo Troa de Librerías y Distribución, con Audiovisual 4. Lección de Ingreso del autor como Amigo (Madrid, Torre de los Lujanes) 		
Hasi: 2018ko Urria		Final: 2019ko Urria
OHARRAK: <p>Proposameak ondorengo ekintzak ere eskaintzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurkezpena madrilgo Urrechu jatetxean; irakurketa dramatizatuarekin. 2. Aukerpena Urretxun, idazle eta editorearen partehartzearekin 3. Aurkezpena madriden: Librería Neblí c/. Serrano, central del Grupo Troa de Librerías y Distribución, con Audiovisual 4. Lección de Ingreso del autor como Amigo (Madrid, Torre de los Lujanes) <p>Babeslearentzako 500 kopia Liburuen salmenta eta zabalkundea babeslearen esku</p>		



IPARRAGIRRE LITERATUR SARIAK		
Iparragirre literatur sari ezagunak indartu		
Arduraduna: Udala eta Felix Maraña	Non: Urretxu	Esparrua: Literatura
DESKRIBAPENA Dagoeneko izena eta ospea duten sari hauei bultzada bat ematea da helburua. Sarien helburua berriz, idazle gazteak ezagutzera ematea da, eta Urretxu-Zumarragaren artean antolatzen dira. Sariak 3 kategoriatan ematen dira: Poesia, Prosa eta Bertsopaperak		
Hasi: jarraipeneko		Amaitu: Jarraipeneko



PROPOSTAMENTA

HAURRAK





EGUTEGIA		
Iparragirrenen bizitza eta kantuak ezagutzera emango dituen egutegia		
Arduraduna: Gainzuri ikastetxea (hizkuntza normalkuntza batzordea)	Non: Urretxu	Esparrua: Hezkuntza
DESKRIBAPENA Eskolako ikasle guztiek Iparragirrenen biografia landuko dute; ziklo bakoitzean hiru abesti. Hauek dagokien abestiaren kontakizuna eta irudia DinA3 batean aurkeztuko dute, eta aurkeztutako lan guztiekin eta 5, eta 6, mailakoek asmatutako lelo batekin egutegia osatuko da. Gainera, lan guztiekin erakusketa bat egingo da abenduan.		
Hasi: 2019 iraila		Amaitu: 2019 urriaren 18an amaitu eta abenduan argitaratu
OHARRAK Gainzuriren ohiko ikasturtearen barruan.		

TURISMO



IPARRAGIRREREN IBILBIDEA		
<p>Baserriko bizimodua, XIX. mendean gertatu ziren aldaketa bortitzak, emigrazioa, garaiko pertsonaiak, Iparragirre, Zumalakarregi anaiak, Gaspar de Jauregi, egungo gizartea ezagutu eta ulertzeko funtsezko den garai horretan murgiltzea du helburu ibilbide honek.</p>		
<p>Arduraduna: Urretxuko Udala (kultura saila)</p>	<p>Non: Urretxu, Zumalakarregi Museoa (Ormaiztegi) eta Igartubeiti Baserri Museoa (Ezkio)</p>	<p>Esparrua: Turismoa, historia, kultura, ondarea</p>
<p>DESKRIBAPENA</p> <p>Urretxu herria: Iparragirreren eta Gaspar de Jauregiaren jaioterria: jaiotetxea, alde zaharra, estatua, eliza, hilerria. Anjela Kerexeta</p> <p>Zumalakarregi Museoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tomas Zumalakarregi, jeneral karlista eta Migel Zumalakarregi, politikoa liberala. • Aintzin Erregimenetik Liberalismorako pasabide bortitza, Frantzes Iraultza eta Gerrate Karlisten sorrera eta ondorioak. Bigarren Gerrate Karlista • <i>Leopodina Rosa</i>, XIX. mendeko migrazioa XXI.ean islatua, erakusketa, 2019-09-20/2019-03-22 <p>Igartubeiti Baserri Museoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dolare baserrien sorrera eta bilakaera. • Baserriko bizimodua • Erdi Aroko azken mendeetan gerrari feudalen indarkeriak izua ekarri zuen Euskal haranetako baserriarren artera. Orduan hiribilduen babesa bilatu zuten nekazariak. Ezkioko eta Zumarragako jendeak erregeari eskatu zion hiribildu harresitua sortzeko bere burua babesteko. Tartean zegoen Pedro Yartua, Igartu etxearen jabea, 1383an Urretxuko Villarreal edo hiribildua sustatu zutenean. 		
<p>Hasi: 2020ko urtarrila</p>		<p>Amaitu: Jarraipeneko</p>



EL URRETXU DE IPARRAGIRRE		
Iparragirrereren garaiko Urretxu ezagutzuz		
Arduraduna: Iñaki Casas	Non: Urretxu	Esparrua: Turismoa
DESKRIBAPENA Urretxuko mapa eguneratu batean zenbait puntu markatuko dira. Puntu horietara gerturatzean, plaka bat topatuko dute parte hartzaileek. Plaka horiek QR kode bat izango dute, eta mugikorrarekin eskaneatzean tokiarekin erlazionatutako irudi bat, testu bat edo audio bat agertuko da telefonoan; toki hori XIX.mende hasieran nolakoa zen erakutsiko diena, edo garaiko Urretxuren inguruko informazioa eskainiko diena. Aipatutako mapak kulturetxean banatu daitezke, edo web-ean jarri. Jarduera adin guztietako pertsoneri zuzendua dago eta autonomoa da, ez dute gidarik edo monitorerik behar; norberak egin dezake telefono batekin		
Hasi: 2020 Urtarrila		Amaitu: Jarraipeneko

**URRETXU, ANGELA KEREXETAREN BEGIETATIK**

XIX. Mendeko Urretxu, garaiko emakumeen begietatik erakusten duen bisita gidatua. Angela Kerexeta, Iparragirrerren emaztea zenaren testigantzak hartuta, historiaz, feminismoaz, herriaz... dugun ezagutzan sakondu eta solas egiteko aukera bikaina.

Arduraduna: Hezi2de,
Kooperatiba Elkarte Txikia

Non: Urretxu

Esparrua: Berdintasuna,
Turismoa

DESKRIBAPENA

Hezi2de, Urretxun kokatutako emakume eta gizonen berdintasunerako formazio eta aholkularitza enpresaren eskutik bisita gidatuak antolatu dira Urretxuko alde zaharrear. Bisita hauetan garaiko Emakumeen bizimodua lantzen den, Angela Kerexetaren (Iparragirrerren emaztea izan zenaren) irudia eta testigantzak oinarri hartuta. Bisita hauek martxan daude jada, eta taldean zein banaka eman daiteke izena.

Hasi:
2018an

Amaitu:
Jarraipeneko



PROPOSAMENTA

URR. ETXUTIKO MUNDURAKO





IPARRAGIRREREN HERRIAK		
2020ko Folklore jaialdian Iparragirrerren figura omendu, bizi izan zen herrietako taldeekin batera. Urretxun.		
Arduraduna: Lurra dantza taldea	Non: Urretxu	Esparrua: Kultura
DESKRIBAPENA		
<p>2020an Iparragirre jaio zenetik 200 urte ospatuko direla ikusita, Lurrak urtero ospatzen duen Herriarteko Folklore Jaialdia Iparragirrerri begira egitea da proposamena.</p> <p>Jaialdira, Iparragirrek ezagutu zituen edo bizi izan zen herrietako taldeak gonbidatu eta beren bizitzaren pasarteak kontatu edo bizipenen errelatua egitea da ideia. Horretarako taldeen dantzak eta Iparragirrerren inguruko testuak edo bere abestiak uztartuz.</p> <p>Gainera, Iparragirre eta Angelaren trajeak egiteko aukera polita da, gerora ere antzerkietan edo ekitaldietan erabili daitezkeenak. Egunean bertan, aurkezleak eramango du Iparragirrerren arropa.</p>		
Hasi: 2020ko Irailaren 12a		Amaitu: egun berean